



**ERRETIRO PARTZIALA HARTU DUTEN IRAKASLEI %15eko  
LAN-KONTRATUAK EGITEKO DIRU-LAGUNTZAK**

- a.- **ESKAKIZUNAK**
- b.- **AURKEZTEKO EPEAK**
- c.- **AURKEZTEKO TOKIA**
- d.- **AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK**
- e.- **DIRU-LAGUNTZAREN ORDAINKETA**
- f.- **FROGAGIRIAK**
- g.- **ESKAERA ORRIA**

### **a.- ESKAKIZUNAK:**

- Itunpeko ikastetxe pribatu bateko irakaslea izatea, lanaldi osoko kontratua izatea eta ordainketa eskuordetuan jasota egotea.
- 60 urte baino gehiago izatea edo Gizarte Segurantzaren erretiroko pentsio kontributiboa jaso ahal izateko gehienez ere 5 urte falta izatea.
- Langileak erretiro partziala eskatzea lanaldiaren %85 eta gainontzeko %15arentzako lanaldi partzialeko lan-kontratua eskatzea.
- Aldi berean lanaldi osoko txanda-kontratu bat izatea Europar Batasunaren barruko erkidego edo Estatu bateko enplegu zerbitzu publiko batean langabetu gisa inskribatuta dagoenen batekin, edota enpresarekin iraupen jakineko kontratua itaunduta duen pertsona batekin . Horrela kontratatzen den pertsonari aplikatuko zaizkion lan-baldintzak guztiz bat etorriko dira enpresak talde eta lanbide-maila bereko lanaldi osoko gainontzeko langileei aplikatzen dienekin. Ildo beretik, hasierako konpromisoa jaso beharko da, txanda-kontratua amaitzen denean, edo amaitu aurretik , kontratua mugagabea bihurtuko dela.  
Txanda kontratua izenpetzen duen pertsona enpresan iraupen jakineko kontratuarekin ari bada lanean, enpresak, laguntza jaso ahal izateko, txanda-kontratuaz gain, kontratazio gehigarri bat egin beharko du Europar Batasunaren barruko Erkidego edo Estatu bateko enplegu zerbitzu publiko batean langabetu gisa inskribatuta dagoen pertsona batekin. Kontratu gehigarri horren iraupena arestian adierazitako aldi baterako kontratua amaitzeko geratzen den denborakoa izango da gutxienez; Kontratuaren lan-baldintzak ere berdinak izango dira.
- Eta eskabidea egiten duen ikastetxea edo enpresa Eusko Jaurlaritzaren Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailak txanda-kontratuak finantzatzeko ematen dituen laguntzen onuraduna izatea.

### **b.- AURKEZTEKO EPEA:**

Diru-laguntza eskabideak aurkezteko epea bukatuko da kontratu izenpetu eta bi hilabeteko epean.

**c.- AURKEZTEKO TOKIA;**

Eskaerak, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibersitate eta Ikerketa Saileko Administrazio eta Dirubideen Zuzendaritzan aurkeztuko dira

**d.- AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK;**

Eskabidearekin batera honako agiri hauek aurkeztu beharko ditu:

- Erretiro partziala onartu dela egiaztatzen duen agiria.
  
- Enplegu bulegoan erregistratutako lanaldi partzialeko lan-kontratuaren, txanda –kontratuaren, eta, hala bada, aldi baterako kontratuaren kopia, bai eta txanda-kontratua duten langileak langile finko bihurtzeko konpromisoa adierazten duen agiriarena ere.
  
- Txanda-kontratuarekin hartutako langilearen Gizarte Segurantzako alta-agiriaren kopia, edo, hala egoitzen denean, aldi baterako kontratatu den langabetuarena.
  
- Kontratatutako langilearen enplegu-eskatzaille txartelaren kopia, eta horrelakorik izan ezik, txanda-kontratua izenpetu zenean langile hori langabetu moduan izena emanda zegoela egiaztatzen duen egiaztagiria, enplegu-bulegoak luzatua.
  
- Txanda-kontratuarekin hartutako langilearen NANaren kopia, eta , hala egoitzen denean, aldi baterako kontratatu denarena.
  
- Eusko Jaurlaritzaren Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailari txanda-kontratua finantzatzeko eskatu zaion laguntzarako eskabidearen kopia, eta, horrelakorik balego, eskabideari egindako ebazpenaren kopia ere bai.
  
- Foru Ogasunaren eta Gizarte Segurantzaren Altxortegi Orokorraren Lurralde Zuzendaritzaren egiaztagiri eguneratua, eta bertan adierazi beharko da enpresa eskatzailleak egunean dituela zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak.  
Edozelan ere, eskabidea aurkeztu ahal izateko, egiaztagiri horren ordez, egiaztagiria ezkatu dela ziurtatzen duen agiria aurkeztu ahal izango da.  
Enpresa batek ordainketak ateratzeko eskabidea egina badu, ordainketetan egunean dagoela ulertuko da, baldin eta atzerapena agiri bidez egiaztatzen badu.

- Enplegua sortu eta finkoa egiteagatik jasotako diru-laguntza eta hobariei buruzko zinpeko aitortpena, eta hala badagokio, baita artean ebatzi gabe dauden laguntza eskabideak ere.

Zinpeko aitortpena baita ere, ondokoa egiaztatuz: Euskadiko Ogasuntza Nagusiaren Antolarauei buruzko legearen testu bateginaren 50. artikuluko 5. parrafoak, Emakumearen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 legeak aldatuak, ezarritako arrazoiren baten eraginpean ez daudela.

#### **e.- DIRU-LAGUNTZAREN ORDAINKETA;**

Dekretu honen babespean onartutako diru-laguntzak urtero ordainduko dira honako bi epe hauetan: guztira ordaindu behar den zenbatekoaren %50 ekitaldi horretako maiatzean ordainduko da, eta gainontzeko %50 azaroan ordainduko da. Bestalde, atzerapenak ere azaroan ordainduko dira. Lehen ordainketa egingo da laguntza onartzen duen ebazpena egin ondoren eta ondorengo parrafoan zerrendatutako frogagiriak jaso ondoren.

#### **f.- FROGAGIRIAK;**

Ordainketak egin aurretik honako agiriak aurkeztu behar izan dira ezinbestez:

- Lanaldi partzialeko lan-kontratuarekin kontratatu den pertsonaren nominaren kopia, txanda-kontratuarekin kontratatu denaren nominaren kopia, eta, bidezko bada, iraupen jakineko kontratua duenaren nominarena.
- Goiko lerroaldean jasotako kontratuei buruzko Gizarte Segurantzaren kotizazio-agirien kopia (TC-1 eta TC-2 ereduak)
- Foru Ogasunaren eta Gizarte Segurantzaren Lurralde Zuzendaritzaren egiaztagiri eguneratua, eta bertan adierazi beharko da enpresa eskatzaileak egunean dituela erakunde horiekiko betebeharrak.

**ESKAERA ORRIA**

**ITUNPEKO IKASTETXE PRIBATUENTZAKO DIRU-LAGUNTZAK,  
IKASTETXE HORIETAN ORDAINKETA ESKUORDETUAREN MENPEKO  
LANGILEEK ERRETIRO PARTZIALA HARTUZ GERO, LANGILE HORIEI  
LANALDI PARTZIALEKO LAN-KONTRATUAK EGITEKO**

**IKASTETXEAREN IZENA**

---

**HELBIDEA**

---

**LURRALDEA**

---

Erretiratuko den irakaslearen izen-abizenak

---

Ondorioetarako data \_\_\_\_\_ Ordainketa eskuordetuan dagokion  
dedikazio-portzentaia \_\_\_\_\_

Lanaldi partzialeko lan-kontratuaren hasiera-data (15%) \_\_\_\_\_

Lanaldi partzialeko lan-kontratuaren hileko zenbateko gordina (Gizarte Asegurantzari  
egindako kotizazioak sartu gabe) (nominaren kopia)

---

Lanaldi partzialeko lan-kontratuaren iraupena (gehienez ere 65 urte bete arte)

---

Lan Saitetik jasotako laguntzak edo bestelakoak

---

\_\_\_\_\_ (e)n, \_\_\_\_\_ ko \_\_\_\_\_ aren \_\_\_\_\_ a

**IKASTETXEAREN TITULARRA EDO ORDEZKARI LEGALA**

**HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILEKO ADMINISTRAZIO  
ETA DIRUBIDEEN ZUZENDARITZA**